



EBAZPENA, 2019ko uztailaren 9koa, Hezkuntza Sailaren Langileak Kudeatzeko zuzendariarena; Horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko maisu-maistren eta Musikako eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoetan sartzeko eta hizkuntza-eskola ofizialetako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko 2019ko martxoaren 1eko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduren lehiaketa-aldian izangaiek lortutako behin-behineko puntuazioak argitara ematen dira, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzaren Unitateek baloratutako merituek barematu ostean

Hezkuntzako sailburuaren 2019ko martxoaren 1eko Aginduaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko maisu-maistren eta Musikako eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoetan sartzeko eta hizkuntza-eskola ofizialetako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko hautaketa-prozeduretarako deia egin zen. Agindu horren 8.7 oinarriak zehazten duenarekin bat etorritik,

EBATZI DUT

Lehenengoa.- Euskal Autonomia Erkidegoko maisu-maistren eta Musikako eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoetan sartzeko eta hizkuntza-eskola ofizialetako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko hautaketa-prozeduren lehiaketa-aldian izangaiek lortutako behin-behineko puntuazioak argitaratzea, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzaren Unitateek barematutako merituei dagozkionak (I. eranskinen I eta II atalak eta III.3 eta III.4 azpiatalak eta II. eranskinen I atala eta III.1 eta III.2.4 azpiatalak), Hezkuntza sailburuak 2019ko martxoaren 1eko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduren barruan.

Bigarrena.- Espezialitate guztietako izangaiek merezimendu horiengatik lortutako puntuazioen behin-behineko zerrenda ondorengo tokian emango da argitara:

<http://www.irakasle.eus> («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartu behar dira):
“2019ko EPE. Maisu-maistrak, kontserbatorioak eta HEO” → “Hautaketa-prozesuaren jarraipena” → kidegoa eta espezialitatea adierazi behar dira
→ “Emaitzak” → “Lehiaketa-aldia – Partziala”.

Hirugarrena.- Izangaiek erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute behin-behineko zerrendaren kontra, lau laneguneko epean, argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita (2019ko uztailaren 11, 12, 15 eta 16).

Erreklamazio horiek Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariari zuzenduko zaizkio eta aurkeztu daitezke Lurralde Historiko bakoitzean Zuzenean dituen bulegoetan:

- Araba: Zuzenean, Ramiro de Maeztu kalea, 10 behea - Vitoria-Gasteiz
- Bizkaia: Zuzenean, Kale Nagusia 85 – Bilbao.
- Gipuzkoa: Zuzenean, Andia kalea 13 – Donostia.

Horretarako, Ebazpen honetan gaineratutako Eranskina beteko da eta, behar izanez gero, justifikatzeko dokumentazioa ere gaineratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailaren 9a

LANGILERIAREN KUDEAKETA ZUZENDARIA

JON AGIRRE HUERGA.



2019ko EPE. MAISU-MAISTRAK, KONTSERBATORIOAK ETA HEO KIDEGOAK OPE 2019. CUERPOS MAESTRAS Y MAESTROS, CONSERVATORIOS Y EOI

ERREKLAMAZIOA aurkezten du honen aurka / *Presenta RECLAMACIÓN contra:*

Lehiaketa-aldian lortutako **behin-behineko puntuazioak** Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzaren Unitateek barematutakoak (I. eranskineko I eta II atalak eta III.3 eta III.4 azpiatalak eta II. eranskineko I atala eta III.1 eta III.2.4 azpiatalak)

Las puntuaciones provisionales alcanzadas en la fase de concurso por los méritos baremados por las Unidades de la Dirección de Gestión de Personal (apartados I, II y subapartados III.3 y III.4 del Anexo I y apartado I y subapartados III.1 y III.2.4 del Anexo II

(2019ko uztailaren 9ko Ebazpena, argitaratuta 2019/07/10/Resolución de 9 de julio de 2019, publicada el 10/07/2019)

Epea: 2019ko uztailaren 11, 12, 15 eta 16 / *Plazo: 11, 12, 15 y 16 de julio de 2019*

Abizenak / Apellidos:	
Izena / Nombre:	NAN / DNI:
Telefonoa / Teléfono:	Kidegoa / Cuerpo:
Txanda / Turno:	Espezialitatea / Especialidad:
Zera adierazten dizu / <i>Expone</i>	
Erantsitako agiriak / <i>Documentación aportada</i>	
Data, tokia / <i>Fecha, lugar</i>	Izenpetua / <i>Firmado</i>